



Usurbilgo Udala



## 2014KO EKAINAREN 24AN EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.  
Josu Portu Alzaga J.  
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.  
Jose María Rivadeneyra Sicilia J.  
Iñaki Ugarte Aguirre J.  
Eustakio Arrojeria Eguzkiza J.  
Jose Ramon Furundarena Salsamendi J.  
Luismari Ormaetxea Santsiñena J.  
Miren Josune Urquia Carrera A.  
Ricardo Crespo Rubio J.

**Idazkaria:** Nagore Sarasola Otermin A.

**Kontu-hartzailea:** Lioba Maiza Recondo A.

**Ezin etorria adierazi dute:** Enara Arbizu Irurtia Ak.eta Josune Urkola Larrarte Ak.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2014ko ekainaren 24an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA: 2014/03/25EKO OHIKOA ETA 2014/04/11KO EZOHIOA.**

Batzarkideek 2014ko martxoaren 25eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

Jarraian, 2014ko apirilaren 11ko ezohiko bilkurako akta gehiengoz onartu dute, bilkuran egon ez ziren Eustakio Arrojeria, Luismari Ormaetxea, Miren Josune Urquia eta Ricardo Cresporen abstentzioarekin eta gainontzeko batzarkideen aldeko botoarekin.



Usurbilgo Udala



## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2014KO APIRILAREN 24TIK EKAINAREN 13RA (2014/0367 – 2014/0545)**

Alkatetzak 2014ko apirilaren 24tik ekainaren 13ra bitartean (2014/0367-2014/0545) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- UDALBATZA PLENOAK 2014KO MARTXOAREN 25EAN LANPOSTUEN BALORAZIOAREN ERREBISIOA ONARTZEKO HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOAK EBAZTEA.**

Alkateak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Adierazi du 2014ko martxoko plenoak erabakia hartu ondoren, honen berri interesatuei banan-banan eman zitzaiela. Bost langilek berraztertze errekurtsoa aurkeztu zutela esan du, lau lanposturi eragiten zienak. Errekurtsio hauek LKS enpresari bidali zitzaizkion, eta bertako Idoia Irizar aholkulariak aztertu ondoren, honek egindako txostena balorazio mahaira bidali zen. Balorazio mahaia bildu zen eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioak ez aintzat hartzea erabaki zela aditzera eman du. Diktamenarekin batera banatu direla esan du aurkeztutako berraztertze errekurtsioak eta txostena.

Jarraian, kasu bakoitza azaldu du gainerik.

Itzultzaile administrariaren kasuan eta idazkaritzako administrariaren kasuan, LKSk hauek aintzat hartzeko arrazoirik ez zuela ikusten adierazi du.

Garapen ekonomiko eta hezkuntza saileko buruak eta Euskara, kultura eta gazteria saileko buruak aurkeztutako errekurtsioen kasuan LKSk lehen planteatzen zuen berdina berresten zuen, hau da, puntu bat igotzea. Udal gobernuak, ordea, lehen bezala ikusten zuena zen ez zegoela iritzia aldatzeko arrazoirik. %75eko babesak ez zuten lortzen, bi kasu hauek ere bere horretan geratu zirela azaldu du.

Publikotik Maite Iribarrek hitza hartu du eta galdera bat egin nahiko lukeela adierazi du. Hasteko esan du oso urduri dagoela eta asko kostata etorri dela bilera honetara. Ez dakiela dio batzarkideek errekurtsioak irakurri ote dituzten baina zatitxo batzuk behintzat irakurri nahiko lituzkeela esan du.

Ez duela ulertzen dio nola udalak enpresa bat kontratatu dezakeen lan bat egiteko, lan horrek gauza bat aditzera eman, alegia, Josune Mujika eta bere kasuan beraien lanak ez daudela baloratuta eta beste maila bat daukatela esan, eta horren aurrean partidu politiko bakarrarekin osatutako balorazio mahai batek, eta hori azpimarratu du, nola hartzen duen horren kontrako iritzia. Kasu batzuetan, txostenak kontutan hartzen direla eta beste batzuetan ez esan du. Balorazio mahai horretan teknikari funtzioa betetzen



Usurbilgo Udala



duen pertsona bakarria LKS enpresako langilea dela dio, eta erabateko kriterio politikoetan oinarrituta hartzen dela erabaki hori azpimarratu du.

Berari soldata ez igotzea, baina bai egiten duen lana aitortzea eskatzen die. Azkenean, berari gutxiena axola diona soldata hori dela azpimarratu du.

Eskerrak eman ditu aukera hau izan duelako.

Bestetik, alderdi politikoei galdetu die, batetik, ea aurkeztu duen alegazio txostena irakurri duten eta, bestetik, ea zer pentsatzen duten enpresa batek txosten bat egin eta udalak, kasu honetan alderdi politiko batek bakarrik osatutako mahaiak, ez aintzat hartzea.

Min handia duela eta asko kostatzen zaiola eguneroko lanean jardutea esan du.

Bere helegiteari emandako erantzunean oso gauza larriak esaten direla uste du eta ez dakiela nora jo beharko duen baina kontentziosora seguruenik ez.

Inor ez zaiola galdetzera ere hurbildu kexatu da.

Alkateak galdetu du ea norbaitek zerbait komentatu nahi duen.

Luisuari Ormaetxeak hitza hartu du eta adierazi du beraien botoa abstentzioa izango dela eta horren zergatia azaldu du. Gai hau ez dela berria dio, gutxienez duela zortzi urtetik honako kontua dela esan du. Aurreko legealdian negoziazio kolektiboa egin zenean erabaki zela dio azken puntu bezala bi urtetik behin balorazio hauek errepikatuko zirela, eta beraien iritziz hori akats larri bat izan zen. Geroztik gai hau mahai gainean jarri denean beraiak abstenitu egin direla esan du.

Maite Iribarrek esan duenaren harira adierazi du banatzen zaien dokumentazio osoa irakurtzen dutela, eta zehaztu du beraien lan taldean dokumentazioa irakurri, landu, aztertu eta eztabaidatu egin dutela.

Jarraian, Eustakio Arrojeriak hitza hartu du eta honek ere adierazi du dokumentazioa irakurri dutela.

Puntualizatu du deigarria egin zitzaizela bi kasu zehatzetan LKSk zerbait planteatu eta udal gobernuak aurrera ez ateratzea, baina han bertan ere horren zergatia azalduz argumentu batzuk ematen zirela gehitu du. Hori ikusita, beraien aldetik momentu hartan ez zutela beharra ikusi dio gehiago galdetzeko.

Pertsonalگو batzordeko kidea bera dela esan du baina lan kontuak tarteko ezin izan duela batzordeetara etorri esan du. Hala ere, ELA sindikatuarekin hainbat kontsulta egin dituela esan du, iruditzen zitzaiolako kritikoena izan zitekeela honen inguruan, eta



Usurbilgo Udala



akatsak aitortu arren prozedurarekin eta egin diren gauzeekin bide ona egin dela aitortu zutela esan du.

Bestalde, langileen aldetik, errekonozimendu hori ez aitortu izanak ezinegon bat sor dezakeela ere ikusten duela esan du. Halaber, sindikatuak ere esaten zuela dio ez dela dena beraiek nahi zuten bezala atera, baina arautu duten formula eta batik bat blokeoarena azpimarratu dutela dio. Azken batzordean aipatu zutela esan du sindikatuak eskatutako zerbait zela, eta langileen egoera babestearen aldeko apustua zela. Horrek berak berari lasaitasuna eman ziola azpimarratu du.

Gai honekin orain arte abstentzioa eman dutela eta orain ere horrela izango dela esan du.

Denbora luzean datorren karga bat dela esan du eta hori finikitzea ere ona dela.

Ricardo Crespok ere adierazi du dokumentazioa denek irakurtzen dutela.

Iragana ez duela ezagutzen eta ez dakiela kontu hau nondik datorren esan du. Legealdi honetakoa bakarrik ezagutzen duela gehitu du eta beti abstenitu egin izan dela gai honetan, kasu honetan ere bere bozka abstentzioa izango dela esan du.

Alkateak esan du Maite Iribarri zuzenduz "kriterio politikoetan oinarritutako erabakiak izan direla" esan duenean, ulertu nahi duela dio hori esaten duela talde politiko bakar bat dagoelako, ez kriterio politikorik dagoelako erabakian.

Dena den, eraman den prozedura plenoan onartutako prozedura izan dela dio, sindikatuarekin adostutakoa eta gogorarazi du nolabait langileei babesa emate aldera, edozein erabakik %75eko babesa behar zuela bai gora edo bai behera joateko.

Prozedura gardena izan dela azpimarratu du.

Bestalde, hasiera hasieratik esan izan duten bezala, berretsi du lanpostua dela baloratzen dena eta ez langilea. Maiteri esan dio bere lana ez dela inolaz ere zalantzan jartzen.

Alaitz Aizpuruak gaineratu du hemen ez dela pertsona baloratzen, lanpostua baizik, eta horretan saiatu direla esan du.

Kriterio politikoarena argitze aldera Maite Iribarrek esan du balorazio mahai horretan LKSren proposamenak atzera egiten duela gobernu taldeak ezezkoa bozkatzeko duelako. Galdetu die ea zertan oinarritzen diren proposamen batzuei baiezkoa eta beste batzuei ezezkoa emateko, kontutan izanda tartean teknikari bat ez dagoela hori lantzen duena.



Usurbilgo Udala



Alaitz Aizpuruak erantzun dio mahaia osatzen dutenek hartzen dituztela erabakiak. Teknikariari aholkulari baten txostena eskatzen zaiola esan du eta horren ondoren mahaia osatzen dutenek dituzten ikuspuntu eta kriterioen arabera erabakiak hartzen dituztela, baina horrek ez duela esan nahi dio kriterio politikoak daudenik atzetik.

Bestalde, esaten duenean ez dela inor beregana joan, honi buruz esan du LKSren prozedurak horrela esaten zuelako eta horrela adostuta zegoelako langileei elkarriketa bat egin zitzaiela non bere funtzioak etab. errepasatzen ziren, eta beraien gunea lanpostuen funtzioen inguruan aritzeko balorazio mahaia dela esan du.

Prozedurari buruz Maite Iribarrek adierazi du langileari ez zitzaiola jakinarazi zein izango zen prozedura.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio adostutako prozedura bat izan dela eta gero horren berri langileei ere ematen zaiela.

Idazkariak gogorarazi du kontutan hartu beharrekoa dela legegintzaldi honetan zerotik ez dela abiatzen, aurreko legegintzaldian beste enpresa batek (CGP enpresa) txosten tekniko bat burutu zuela. Gaineratu du garrantzitsua dela esatea bi aldiz baloratu direla eta bi aldiz errebisatu direla.

Azkenean, funtzioen aldaketa nabarmenik ez dela gertatzen eta hori dela gauzarik garrantzitsuena azaldu du. Berak idazkari bezala ez diola zentzu handiegirik aurkitzen esan du bi urtetik behin funtzioen errebisioa egiteari funtzioetan aldaketarik ez dagoenean. Eta kasua dela dio bi lanpostu hauetan zehazki ez dela funtzioen aldaketarik eman.

Alaitz Aizpuruak esan du funtzioen errebisioa bi urtetik behin egitea adostu zela eta egin den errebisioa modu ezohiko batean egin dela esan du. Beraiek ulertzen dutela dio hemendik aurrera funtzioak aldatzen diren kasuetan bakarrik egingo dela errebisioa.

Maite Iribarrek galdetu du ea balorazio mahaia zergatik osatu den alderdi politiko bakarrarekin.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio, batetik, gehiengoan daudelako eta, bestetik, Aralar alderdiari eskaintza egin zitzaiola baina honen erantzuna izan zela besteak ez bazituzten gonbidatzen beraiek ez zutela parte hartuko.

Berriz ere azpimarratu du lanpostuak baloratzen direla eta ez pertsonak.



Usurbilgo Udala



Maite Iribarrek berriz ere esan du berak ez duena ulertzen dela LKSk txosten bat egin eta udal gobernu taldeak berak bakarrik erabakitzea hori ez duela nahi, eta kasu guztien artean hori gertatzen dela bi lanposturekin bakarrik.

Erantzun zaio balorazio mahaiak bere funtzioa duela eta bertan daudenek beraien iritzia dutela.

Alaitz Aizpuruak gehitu du sindikatuek zoriondu egin dituztela eztabaida guztiak balorazio mahaira eraman direlako eta hortik kanpora ez delako ezer eraman. Bestetik, ordea, badirudiela esan du balorazio mahaiak erabakiak hartzeko zilegitasunik ez duela.

Batzarkideek, Pertsonalگو batzordearen diktamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“ESP:ID.06/2013-0297

Udalbatza Plenoak 2014ko martxoaren 25ean ospaturiko bilkuran lanpostuen balorazioa onartzeko erabakia hartu zuen. Aipatu erabakiaren eranskin gisa lanpostuen balorazio taula eta balorazio errebisio mahaiak egindako proposamena atxiki ziren.

Aipatu erabakiaren aurka, jarraian zehazten diren udal enplegatuek berraztertze helegiteak aurkeztu dituzte legez ezarritako epean:

- Lurdes Zubeldia Errazkin (Itzultzaile Administraria). Sarrera data: 2014ko apirilak 11(1263 erregistro zkia.).
- Josune Mujika Tolaretxipi (Garapen ekonomiko eta Hezkuntza Saileko Burua). Sarrera data: 2014ko apirilak 28 (1436 erregistro zkia.).
- Josune Iribar Zapirain eta Idoia Agirre Larrañaga (Idazkaritzako administraria). Sarrera data: 2014ko apirilak 29 (1449 erregistro zkia.).
- Maite Iribar Argote (Kultura, euskara eta gazteria Saileko Burua). Sarrera data: 2014ko apirilak 30 (1477 erregistro zkia.)

LKS enpresako aholkulariak, Idoia Irizar andreak, aipatu berraztertze helegiteei buruzko txosten teknikoak egin du eta aipatu txostena espedientean jasota dago.

Balorazio Errebisio Mahaiak 2014ko ekainaren 16an ospaturiko bilkuran berraztertze helegiteak aztertu ditu LKSk Idoia Irizar teknikariaren aholkularitzapean eta erabaki proposamena luzatu dio Pertsonal Batzordeari.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 89.5 artikulua dioenari jarraiki, erabakia arrazoitze baliatuko den Balorazio Errebisio Mahaiaren erabaki proposamena eransten da erabaki honekin batera.



Usurbilgo Udala

Diktamena osatzeko asmoz, 2014ko ekainaren 20an pertsonal batzordean, eginiko proposamena bozketara jarri denean honako emaitza jaso du:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta.

Abstentzioak: Luis Mari Ormaetxea, Eustakio Arrojeria eta Josune Urkola.

Pertsonalgo batzordearen erizpena kontutan hartuta, Udalbatza Osoak honako erabakia hartu du gehiengoz:

### **E R A B A K I A**

**Lehenengoa:** Lanpostuen balorazioaren inguruan Balorazio Errebisio Mahaiak egindako proposamena bere osotasunean onartzea, bai puntuazio, berraztertze helegiteen erantzun eta ondorioei dagokionean eta hortaz, aurkeztutako berraztertze helegiteak ez onartzea aipatu proposamenean azaldutako arrazoiengatik eta Udalbatza Plenoak 2014ko martxoaren 25ean hartutako erabakia berrestea. Balorazio Errebisio Mahaiaren erabaki proposamena eransten da erabaki honekin batera.

**Bigarrena:** Erabaki hau langileen ordezkarietara eta errekurtsogileetara jakinaraztea.”

Bozketan honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia eta Iñaki Ugarte Aguirre.

Abstentzioa: Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, LuisMari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

#### **4.- USURBILGO UDALAREN 2013KO KONTU OROKORRA BEHIN BETIRAKO ONARTZEA.**

Batzarkideek, Ogasuna batzordearen diktamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Usurbilgo Udalaren 2013ko ekitaldiaren Kontu Orokorra osaturik, Hazienda eta Kontuen Batzorde Berezian aztertu zen apirilak 15eko batzorde bileran.

Indarrean dagoen araudiak ezarritakoa betez, jendaurreko erakusketan jarri zen, apirilak 24ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.



Usurbilgo Udala

Jendaurrean egon den bitartean, ez da inolako oharrik ezta erreklamaziorik aurkeztu.

Kontu Orokorren behin betirako onarpena Plenoari dagokio.

Horrela beraz, Batzordea osatzen dutenak, Mertxe Aizpurua, Alaitz Aizpurua eta Jose Ramón Furundarenaren aldeko botoekin eta Luis Mari Ormaetxea, Ricardo Crespo eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, Udal Batza Osoari proposatutako erizpena kontutan hartuta, Udalbatza Osoak honako erabakia hartu du gehiengoz:

### **E R A B A K I A**

- 1.- Usurbilgo Udalaren 2013 ekitaldiko Kontu Orokorra behin betirako onartzea.
- 2.- Behin betiko izaeraz onartutako Kontu Orokorren Espedientea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea, dagozkien azterketak egiteko.”

Bozketan honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

### **5.- GIPUZKOAKO TOKI ENTITATEEN AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN ALORRETAN OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAK ARGITARATUTAKO (2013KO AZAROAK 13AN GAON) HIRUGARREN JARRAIBIDEA EZ BETETZEARI BURUZKO DIKTAMENA.**

Lioba Maiza udal kontuhartzaileak azalpenak eman ditu. Adierazi du legedi berriarekin, lehen estabilitateko baldintza bete behar bazen, orain iraunkortasuna eta gastu erregela ere gehitu direla.

Iraunkortasuna dela dio zor mailari limite bat jartzea eta hori betetzen dutela esan du. Gastu erregela gastu kontsolidatua ez handitzea dela esan du eta honi dagokionean, Foru Aldundiak 2013ko instrukzioan esaten omen zuen hau ez bazen betetzen plan bat egin behar zela; 2014ko instrukzioan ordea ahalbideratzen du beste baldintzak betetz kontu-hartzaileak komunikazio bat eginez jarraitzea. Hemen kontutan hartzen dela dio urte bateko likidazioa eta hau konparatzen dela hurrengo urteko aurrekontuarekin, kreditu aldaketarekin eta likidazioarekin.





Usurbilgo Udala



Gaineratu du 2014ko aurrekontuan baldintza guzti horiek bete egiten direla. 2013ko likidazioan, ordea, gastu erregela ez zela betetzen azaldu du, nahiz eta beste baldintza guztiak bete.

Zalantza sortu zenez 2013ko instrukzioa edo 2014koa aplikatu behar zen, Foru Aldundiak azkenean esan omen zuen 2013an ez zuela horrela arautu eta instrukzioak jartzen zuela plana egin behar zela.

Bestalde, Foru Aldundiak tutoretza finantziarioa egiten duela esan du, eta kasu honetan ez dutela txostenik egin edo notifikatu baina informazio guztia daukatela zehaztu du.

Zehaztu du 2013an, beste aurrekontuekin konparatuz, aurreikusitakoa baino gehiago exekutatu dela eta hortik datorrela arazoa, hala ere, horrek ez duela esan nahi egoera txarra denik. Besterik gabe, bete beharreko tramite bat dela esan du.

Luisuari Ormaetxeak hitza hartu du eta, hasteko, adierazi du beraien taldean, alderdikoekin, idazkariarekin, kontu-hartzailearekin gai korapilatsu honekin aritu direla, eta azken bi hauei eskerrak eman dizkie gai hau azaltzerakoan erakutsi duten pazientziagatik.

Bestalde, kritika bat egin nahi duela esan du, izan ere, espedientera joan eta bertan dagoen idatzi bakarra edo sinatzen duenarentzat konprometigarria den bakarra, kontu-hartzailearena dela esan du. Lehen kontu-hartzaileak eman dituen azalpenetan adierazi duen moduan, Foru Aldundiarekin izan diren hartu-emanak soilik ahozkoak izan direla eta Foru Aldundiko Ogasun Saila ez dela busti kritikatu du, haien idatzizko txostenik ez dagoela, hau da, Foru Aldundikoek interpretatu dutenaren arabera udal honetan erabaki bat hartu behar da. Gainera irregularra izan daitekeen erabaki bat dela dio, izan ere gastu erregelaren araudia 2013ko otsaileko Foru Arau batean eta baita 2013ko azaroko Diputatuen Kontseiluaren erabaki batean finkatu baitzen. Orain ordea egoera kurioso batetan aurkitzen garela esan du, hau da, orain hartuko duten erabakia 2013ko diru kontuei lotuta dagoela baina aplikagarria ez litzaiokeen araudi batekin, baizik eta ondoren onartutako zerbaitekin. Laburbilduz, 2014ko urteari aplikatu beharrekoa 2013ari aplikatzen ari direla eta, beraz, retroaktibitatez aplikatzen ari direla esan du, Diputatuen Kontseiluko erabaki horietan ez dela finkatzen esan du retroaktibitatez aplikatu daitekeenik. Gainera Usurbil kasu bakarra omen da, baina azpimarratu du hona ez dela txostenik iritsi hori esaten duenik.

Amaitzeko esan du ez direla sartuko ea udaletxea ondo dagoen edo gaizki dagoen ekonomikoki, soilik prozedurari dagokionean bere desadostasuna azaldu du eta adierazi du beraien ez dutela onartuko aplikatu beharreko araudi bat retroaktibitatez aplikatzea eta aurka bozkatuko dutela.

Kontu-hartzaileak adierazi du legea aplikatuko balute ez luketela plenora ekarriko, berak komunikazioa egingo lukeela eta plenoari berri emango litzaiokeela, hori dela eta beste legedia ari direla aplikatzen esan du. Bestalde, Diputazioak baduela



Usurbilgo Udala



erantzukizuna honetan, zeren tutoretza finantziario horretan ikusten badu udalaren egoera ez dela ona, eta ez badu ezer egiten, Ministeritzaren aurrean erantzukizuna izango lukeela esan du.

Luisuari Ormaetxeak azpimarratu du erabakia hartzen duena plenoa dela, nahiz eta Foru Aldundiak tutoretza hori egin.

Ricardo Crespok hitza hartu du eta kontu-hartzaileari galdetu dio ea Aldundiari nola egin dion kontsulta, zeren ahoz egin baldin bada, Luismarik esan duenarekin ados dagoela esan du, azkenean erabakia hartzen dutenak politikoak dira eta zerbait gaizki badao erantzukizuna izango dutenak baita ere.

Hau horrela izanik, hoberena puntu hau mahai gainean uztea izango litzatekeela esan du, kontsulta idatziz egin eta erantzuna ere idatziz jaso ahal izateko.

Kontu-hartzaileak adierazi du kasu okerrean Diputazioak plan ekonomiko bat egitea errekerituko lukeela, beraien eskumena eta betebeharra ez delako kontu-hartzaileak egiten duen txostenari erantzutea. Azpimarratu du edukirik gabeko plan ekonomikoa izango litzatekeela.

Ricardo Crespok errepikatu du kontsulta behintzat egin beharko litzatekeela zalantzarik ez edukitzeko.

Alkateak adierazi du kontu-hartzaileak emandako azalpenak ontzat ematen dituztela.

Ricardo Crespok berriz ere adierazi du berak puntu hau mahai gainean utziko lukeela Aldundiaren idatzizko erantzuna eduki arte.

Batzarkideek, puntu hau mahai gainean ez uztea erabaki dute, honela izan da bozketa:

Mahai gainean uztearen alde: Luisuari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Ricardo Crespo Rubio.

Mahai gainean uztearen aurka: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

Batzarkideek, Ogasuna Batzorde Informatzailearen diktamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:



Usurbilgo Udala



“2014ko martxoak 27an, kontuhartzaileak ondorengo txostena burutu zuen, 2013ko ekitaldi ekonomiko likidazioari buruz, egonkortasun, iraunkortasun eta gastu erregela aztertuz:

#### **ARAUDI APLIKAGARRIA:**

1. 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
2. 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
3. Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko azaroaren 19koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

**AZTERTUTAKO TRAMITEA:** 2013. urteko aurrekontuaren likidazioaren onarpena

#### **1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)**

**1.1.- ENTITATE ZERRENDA:**Usurbilgo Udala

#### **1.2.- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA**

##### **Aurrekontuen egonkortasuna**

2013. urteko aurrekontuaren likidazioaren onarpenaren espedienteak **143.027,55** euroko **superabita** du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetako sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetako gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2013rako ezarritako helburua defizit zero izatea da.Hori dela eta, 2013. urteko aurrekontuaren likidazioaren onarpen espedienteak aurrekontu egonkortasunaren 2013rako helburua **betetzen** du.

##### **Finantzen iraunkortasuna**

2013ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia (2.077.128,68), guztira, 2013an likidatutako sarrera arrunten (9.300.761,68) **%22,33** izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2013ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.



Usurbilgo Udala

2013rako ezarritako helburua magnitude hori %95 baino txikiagoa izatea da.

Hori dela eta, 2013. urteko aurrekontuaren likidazioaren onarpen espedienteak finantza iraunkortasunaren helburua **betetzen** du.

### Gastuaren araua

2012ko eta 2013ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa **%11,22** da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

<b>GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA</b>		
a1	2012ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	8.862.424,52
a2	SEC doiketak	0,00
a3	2012ko interesak	56.338,24
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2012an	1.342.284,74
<b>a=a1+a2-a3-a4</b>	<b>2012ko gastu konputagarria (aurreikuspena)</b>	<b>7.463.801,54</b>
b1	2013ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	9.232.413,32
b2	SEC doiketak	0,00
b3	2013ko interesak	48.714,77
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2013an	865.166,21
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketan eragina	17.099,98
<b>b=b1+b2-b3-b4-b5</b>	<b>2013ko gastu konputagarria</b>	<b>8.301.432,36</b>
<b>c=(b/a-1)*100</b>	<b>Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)</b>	<b>11,22%</b>

2013rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa %1,7 baino txikiagoa izatea da.

Hori dela eta, 2013. urteko aurrekontuaren likidazioaren onarpen espedienteak 2013rako gastuaren araua **ez** du betetzen du.

### 1.3.- ONDORIOAK

2013. urteko aurrekontuaren likidazioaren onarpen espedienteak aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunaren helburua **betetzen** ditu, baina ez gastuaren araua. Beraz, Usurbilgo Udalak ekonomia eta finantza plana onartu beharko luke, Diputatuen Kontseiluaren Akordioaren arabera, 2013ko otsailaren 19koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki



Usurbilgo Udala

entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan(2013.urterako).

Hala ere, Diputatuen Kontseiluaren Akordioaren arabera, 2013ko azaroaren 28koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan(2014.urterako),gastu araua betetzen ez duten entitateek, planaren ordeztu, komunikazio bat aurkeztu diezaiokete Udalbatzari, kontu-hartzaileek sinatuta, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- 2013. aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.
- 2014rako defizita eta zor helburuak betetzea.

2013ko aurrekontuaren likidazioan , diruzaintza gerakin likidoa positiboa ( 619,131.45 euro ) izan da.

Aurrezki garbia, aldiz, ondorengo datuetatik lortuko dugu ( 2013ko likidazioa lortutako datuak ) :

Eskubide likidatutak, sarreraren 1-5 kapituluak = 8,823,636.59

- Obligazio onartuak, gastuen 1,2 eta 4 kapituluak = 8,232,021.20
- urteko amortizazio teorikoa = 381,568.86
- = aurrezki garbia positiboa 210,046.53 euroko

Gainera, txosten honetan eta 2014.urteko aurrekontuaren onarpenaren txostenean ikus daiteke , Udalak Usurbilgo betetzen dituela defizita eta zorraren helburuak 2013 eta 2014 urtetarako.

Aurrekoaz gain, Diputatuen Kontseiluaren Akordioaren arabera, 2013ko azaroaren 28koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan (2014.urterako), 3 erregelaren arabera, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatu beharko da.

4.2 artikulua 2/ 2012 Lege Organikoak , apirilaren 27koa , Aurrekontu eta Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasuna arautzen duena, iraunkortasunaren printzipioa honela definitzen du :

*“Se entenderá por sostenibilidad financiera la capacidad para financiar compromisos de gasto presentes y futuros dentro de los límites de déficit y deuda pública, conforme a lo establecido en esta Ley y en la normativa europea.”*

Udalak Usurbilgo Udalak da ekonomikoki jasangarria dela ulertu behar da, ondorengo arrazoietan oinarrituz:



Usurbilgo Udala



Gastu erregela ez betetzea 2013. urteko aurrekontuaren exekuzio altua dela eta izan da, baina hau inbertsio zehatz batzuk direla eta izan da bereziki: Usurbilgo eskola berria, Sekañako urbanizazioa, Atalluko pabeloia, Agerrazpiko urbanizazioa, proiektu eta ikerlan ezberdinak. Honek finantza iraunkortasunari ez dio eragiten, ez baitu hurrengo urteetako gastu konpormisuak (urtekoak eta gerokoak) finantziatzeko ahalmenari eragiten.

Beraz, ez da beharrezkoa ikusten Usurbilgo Udalak plan ekonomiko finantziarioa egitea; hala ere, udalbatzarraren eskumena da erabakitzea plan ekonomiko finantziarioa egitea edo ez.

Plan ekonomikoaren onarpena Plenoari dagokio.

Horrela beraz, Batzordea osatzen dutenak, Mertxe Aizpurua, Alaitz Aizpurua eta Jose Ramón Furundarenaren aldeko botoekin eta Luis Mari Ormaetxea, Ricardo Crespo eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, Udal Batza Osoari gehiengoz proposatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatza Osoak honako erabakia hartu du gehiengoz:

## ERABAKIA

1.- Usurbilgo Udalaren plan ekonomiko finantziarioa ez egitea erabakitzea.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

**Aldeko botoak:** Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

**Aurkako botoak:** Luis mari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

**Abstentzioa:** Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, diktamena gehiengoz onartua izan da.

## 6.- GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.REN KAPITAL MURRIZKETA ETA PARTIZIPAZIOEN EROSKETA.

Alkateak adierazi du diktameneko azalpenen zatia idazkariak osatu egin duela plenora ekartzeko, baina ez erabakien zatia.

Jarraian, aurrekariak eta erabakiak azaldu ditu alkateak.

Batzarkideek, Ogasuna Batzorde Informatzailearen diktamena aztertu dute eta gehien-  
go osoz onartu dute, honako testuaren arabera:



Usurbilgo Udala

“Usurbilgo Udalbatza Osoak, 2010eko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, beste batzuen artean honako erabakia onartu zuen, hitzez hitz:

*“1.- Hernani eta Oiartzungo udalekin batera merkataritza sozietate bat eratzea eta aipatutako memorian jasotzen diren Estatutuak onartzea. Hona hemen entitate horren ezaugarriak:*

*1.1.- Erantzukizun mugatuko sozietatea izango da eta, aplikatu beharreko beste xedapenen artean, Erantzukizun Mugatuko Sozietateen 1995eko martxoaren 23ko Legeari lotua egongo da, eta baita etorkizunean hura osatzeko edo aldatzeko onartzen den araudiari ere.*

*1.2.- Sozietatearen izena hau izango da GARBITANIA ZERO ZABOR, SOZIETATE MUGATUA.*

*1.3.- Sozietatearen helburua hau izango da: hiri hondakinen eta asimilagarrien gaikako bilketa, kudeaketa, ustiaketa eta tratamendua, hala badagokio, gai horri buruz indarrean dauden lege xedapenak eta Europakoak betez, eta hondakinak gutxitzeko eta ahalik eta birziklatze maila altuenak lortzeko eta, hartara, arlo honetan indarrean dauden xedapenek diotena hobeto lortzeko helburua duten bilketa, kudeaketa eta tratamendu sistema bereziak hobetzeko moduak eta neurriak hedatzea.*

*1.4.- Sozietatearen kapital soziala bostehun mila euroz osatua egongo da (500.000 €) eta bazkide bakoitzari dagozkion baltzu partaidetzak hauek izango dira:*

<i>Hernaniko Udala:</i>	<i>%49</i>
<i>Oiartzungo Udala:</i>	<i>%33</i>
<i>Usurbilgo Udala:</i>	<i>%18</i>

*2.- Entitate horren kapital sozialari 90.000 €-ko ekarpena egitea,”*

Aipaturiko erabakia betez, ondorengo astetan Garbitania Zero Zabor, S.M, Elkarteak sortu eta martxan jarri zuten Hernani, Oiartzun eta Usurbilgo udalek.

Geroztik, sozietateak bere erabakiak hartu izan ditu ezarri zitzaizkion helburuak betetze aldera. Horien artean, Garbitania Zero Zabor, S.M.k 100.000 euroko kapital anpliazioa burutzea erabaki zuen, udalerrri bakoitzaren ekarpenak finkatuz eta bazkide bakoitzaren baltzu partaidetzak berdinduz. Usurbilgo zegoenez, udal honek onartu beharreko ekarpena kapital anpliazioa osatzeko 18.000 eurokoa izan zen, 18 partizipazio berri eskuratuz. Usurbilgo Udalbatza Osoak 2011ko otsailaren 15eko bilkuran, beste batzuen artean honako erabakia hartu zuen, hitzez hitz:

*“LEHENA: Garbitania Zero Zabor S. M.ren proposamena aintzat hartuz, sozietateko Batzar Nagusiak erabakitako kapital anpliazioan parte hartzea eta Usurbilgo Udalari dagozkion 18.000 €uroko kapital handitzea onartzea.*



Usurbilgo Udala



*BIGARREN: Aipaturiko kapital anpliazioari aurre egiteko 1.7000.852.442.10.01 partidaren izendatutako kreditua erabiltzea.*

*HIRUGARREN: Hartutako erabakiak betetzeko eta formalizatzeko behar diren urratsak emateko ahalmena eta ordezkaritza Alkatearen esku uztea.*

*LAUGARREN: Erabaki hauen berri Garbitania Zero Zabor Sozietateari eta Kontu-hartzaileari ematea, dagozkien neurriak bideratu ditzaten.”*

Ondoren, Garbitania Zero Zabor Sozietateko Batzar Nagusi unibertsalak 2013ko martxoaren 1ean, 66.000 euroko kapital zabalkundea burutzea erabaki zuen bazkide berri bat sartzeko sozietatean, Astigarragako udala eta Oiartzungo udalak Astigarragako udalari Garbitania Zero Zabor S.M.ko hogeita hamahiru partizipazio saltzea adostu zuen. Kapital handitzeak Usurbilgo udalarentzat ez zuen ekarpen berririk suposatu, baina bai baltzu partaidetzaren aldaketa. Usurbilgo Udalbatza Osoak 2013ko martxoaren 26ko bilkuran, beste batzuen artean honako erabakia hartu zuen, hitzez hitz:

*“LEHENA: Garbitania Zero Zabor S. M.ren proposamena aintzat hartuz, sozietateko Batzar Nagusi unibertsalak 2013ko martxoaren 1ean erabakitako 66.000 euroko kapital zabalkundea onartzea, kapital soziala 666.000 eurotan geratuaz. Zabalkunde hau 1.000 euroko balio nominala duten 66 partizipazio sortuz burutuko da, partizipazio hauek 601etik 666ra zenbakituko direlarik biak barne.*

*BIGARRENA: Kapital zabalkunde hau aurrera eramateko Usurbilgo udalak lehentasunezko harpidetza eskubideari uko egitea onartzea, Hernaniko eta Oiartzungo udalen uko egitearekin bat eginez, 66 partizipazio berri horiek Astigarragako udalak eskuratuko dituelarik.*

*HIRUGARRENA: Kapital zabalkundearen kontra-balorea gisa sozietateko k/kan bere balio nominala adinako transferentzia burutzea izango da.*

*LAUGARRENA: Transferentzia burutzen denean Estatutuetako 5. artikulua erredakzioaren aldaketa burutuko da. Testu berriak honakoa jasoko duelarik:*

*5. artikulua.- Kapital soziala SEIEHUN ETA HIRUROGEITA SEI MILA EUROTAN (666.000 €) finkatuta geratuko da, seiehun eta hirurogeita sei partizipazio sozialetan zatitu eta ordezkatuta (666), bakoitzak mila euroko balore nominala izango du (1.000€), metagarriak eta zatiezinak, korrelatiboki zenbakituak batetik (1) hasita seiehun eta hirurogeita sei (666) arte, biak barne, guztiz izenpetu eta ordainduak*

*BOSGARRENA: Garbitania Zero Zabor S. M.ren proposamena aintzat hartuz, sozietateko Batzar Nagusi unibertsalak 2013ko martxoaren 1ean baimendutakoa onartzea, hau da, Oiartzungo udalak Astigarragako udalari Garbitania Zero Zabor S.M.ko hogeita hamahiru partizipazio saltzea. Bostehun eta hemeretitik (519)*





Usurbilgo Udala



*bostehun eta berrogeita hamaika (551) bitarte, biak barne. Prezioa hogeita hamahiru mila eurokoa (33.000€) izango da.*

*SEIGARRENA: Partizipazio salmenta hau aurrera eramateko legeak eta sozietatearen estatutuek Usurbilgo udalari ematen dioten lehentasunezko eskuratzeko eskubideari uko egitea onartzea, gainerako bazkideen uko egitearekin bat eginez.*

*ZAZPIGARRENA: Sozietatearen kapital soziala seiehun eta hirurogeita sei mila euroz osatua egongo da (666.000 €) eta bazkide bakoitzari dagozkion baltzu partaidetzak hauek izango dira:*

	<i>Kapitala</i>	<i>%</i>
<i>Hernaniko udala</i>	<i>294.000,00 €</i>	<i>%44,14</i>
<i>Oiartzungo udala</i>	<i>165.000,00 €</i>	<i>%24,77</i>
<i>Usurbilgo udala</i>	<i>108.000,00 €</i>	<i>%16,22</i>
<i>Astigarragako udala</i>	<i>99.000,00 €</i>	<i>%14,86</i>
	<i>666.000,00 €</i>	<i>%100,00</i>

*ZORTZIGARRENA: Hartutako erabakiak betetzeko eta formalizatzeko behar diren urratsak emateko ahalmena eta ordezkaritza Alkatearen esku uztea.*

*BEDERATZIGARRENA: Erabaki hauen berri Garbitania Zero Zabor Sozietateari eta Kontu-hartzaitzari ematea”.*

Oraingoan, Oiartzungo Udala Garbitania Zero Zabor S.M.tik ateratzea onartu du Garbitaniaren Batzar Nagusi unibertsalak 2014ko martxoaren 26an ospaturiko bilkuran, eta horren ondorioz kapital soziala 666.000 eurotik 501.000 eurotan geratu da (165.000 euroko kapital murrizketa). Murrizketa hau ekarpen itzulketa medio burutuko da eta horretarako 165 partizipazio sozial amortizatuko dira. Partizipazio horiek 246etik 410era zenbakituak izango dira, biak barne. Hauen jabegoa Oiartzungo udalarena da.

Partizipazioen amortizazioa dela eta, sozio bakoitzak dituen partizipazioek zenbakiko jarraikortasunik ez dutenez, partizipazio guztiak birzenbakitzea adostu da sozietateak gauzak errazte aldera. Sozio bakoitzari legozkiokeen honako zenbaki eta kopuruak adostu ziren Garbitaniaren Batzar Nagusi unibertsalak 2014ko martxoaren 26an ospaturiko bilkuran (Hernaniko udala: 1etik 294ra biak barne, Usurbilgo udala: 295etik 402ra biak barne eta Astigarragako udala: 403etik 501era biak barne).

Aldi berean, Hernaniko Udalak, Garbitaniaren Batzar Nagusiaren baimenarekin 44 partizipazio salduko dizkie sozietateko beste bi kideri (22 Astigarragako udalari eta beste 22 Usurbilgo udalari). Astigarragako udalari Garbitania Zero Zabor S.M.ko 22 partizipazio salduko dizkio (251tik 272era) eta 22.000 euroko balio nominala izango dute. Bestalde, Usurbilgo udalari Garbitania Zero Zabor S.M.ko 22 partizipazio salduko dizkio (273tik 294ra) eta 22.000 euroko balio nominala izango dute.



Usurbilgo Udala



Usurbilgo udalak aipaturiko partizipazio erosketari aurre egiteko 1.1000.852.121.00.01 partidan izendatutako kreditua erabiliko da.

Aurrekariak eta proposamena aztertzeko Hazienda Batzordeak 2014ko ekainaren 10ean eginiko bilkuran, gehiengoz, Mertxe Aizpurua, Alaitz Aizpurua, Jose Ramon Furundarenaren aldeko bozkekin, Luis Mari Ormaetxea eta Ricardo Cresporen aurkako bozkekin eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, Udalbatza Osoari hurrengo erabakiak hartzea, orain arte hartutakoak berretsiz, proposatu zion eta honek gehiengo osoz erabaki hauek hartu ditu:

## ERABAKIA

**LEHENA:** Garbitania Zero Zabor S. M.ren proposamena aintzat hartuz, sozietateko Batzar Nagusi unibertsalak 2014ko martxoaren 26ean erabakitako 165.000 euroko kapital murrizketa onartzea, kapital soziala 501.000 eurotan geratuaz.

**BIGARREN:** Operazioa burutzen denean Estatutuetoako 5. artikulua erredakzioaren aldaketa burutuko da. Testu berriak honakoa jasoko duelarik:

5. artikulua.- Kapital soziala BOSTEHUN ETA BAT MILA EUROTAN (501.000 €) finkatuta geratuko da, bostehun eta bat partizipazio sozialetan zatitu eta ordezkatuta (501), bakoitzak mila euroko balore nominala izango du (1.000€), metagarriak eta zatiezinak, korrelatiboki zenbakituak batetik (1) hasita bostehun eta bat (501) arte, biak barne, guztiz izenpetu eta ordainduak

**HIRUGARREN:** Garbitania Zero Zabor S. M.ren proposamena aintzat hartuz, Hernaniko Udalak Usurbilgo udalari Garbitania Zero Zabor S.M.ko hogeita bi partizipazio saltzea. Berrehun eta hirurogeita hamairu (273) berrehun eta laurogeita hamalau (294) bitarte, biak barne. Prezioa hogeita bi mila eurokoa (22.000€) izango da.

**LAUGARREN:** Sozietatearen kapital soziala bostehun eta bat mila euroz osatua egongo da (501.000 €) eta bazkide bakoitzari dagozkion partaidetzak hauek izango dira:

	Kapitala	%
Hernaniko udala	249.999,00 €	%49,90
Usurbilgo udala	130.009,50 €	%25,95
Astigarragako udala	120.991,50 €	%24,15
	501.000,00 €	%100,00

**BOSTGARREN:** Hartutako erabakiak betetzeko eta formalizatzeko behar diren urratsak emateko ahalmena eta ordezkaritza Alkatearen esku uztea.

**SEIGARREN:** Erabaki hauen berri Garbitania Zero Zabor Sozietateari eta Kontu-hartzailetzari ematea.”



Usurbilgo Udala



Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

**Aldeko botoak:** Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

**Aurkako botoak:** Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, diktamena gehiengo osoz onartua izan da.

## 7.- GALDERAK, ESKAERAK ETA MOZIOAK.

Galdera eta eskaeren tartean, Luismari Ormaetxeak eskaera bat egin du. Jakin dutela eta testigu ere izan direla esan du gutxienez udal langile bat autoa gidatzen ari zela telefonoz hitzegiten ari zen bitartean herriko kaxkoan. Seguraski dei larria izango zela eta udalaren ibilgailu guztietan bluetooth sistema jartzea eskatu dute.

Bestalde, San Juan bezperako sua dela eta galdetu du ea Kalezarko sua udaletxeak prestatu duen. Zehaztu du erre den materiala ea nork jarri duen jakin nahi duela.

Jone Urdanpilletak erantzun dio Kalezarko jai batzordeak jarri duela.

Hori horrela izanik, Luismari Ormaetxeak galdetu du ea nola baimendu den su horretan altzariak, kartoia, papera, koltxoia, etab. egotea. Sua egin zen momentuan udaleko hainbat kide bertan zeudela esan du, hauek udal araudia ezagutzen dutela eta badakitelarik hori egitea debekatuta dagoela. Beraz, jakin nahi duena da hori ekiditeko zergatik ez zen ezer egin.

Alaitz Aizpuruak azaldu du jai batzordeak jarri zuela materiala, hala ere, non egin eta nola egin aurretik adostu zela zehaztu du. Gaineratu du aurreko astean egunero hitzegintza dutela gai honen inguruan.

Jose M<sup>a</sup> Rivadeneyrak gaineratu du berak jai batzordearekin hitzegintza zuela, hain zuzen ere gogorarazteko zein den araudia eta jakinarazteko ere ze material ezin den erre. Hortik aurrera konfidantza maila bat badagoela esan du eta atzoko egunez ez zutela inolr bidali inspektionatzera.

Gaineratu du bera egon zela suaren momentuan eta gauzaren bat ikusi zuela ez zizaitzaiona gustatu, hala ere, aurreko urteetan baino dezente hobeto zegoela adierazi du.

Bestalde, kontutan hartu behar dela dio hau ekintza kultural bat dela.



Usurbilgo Udala



## **7.1.- EHBILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EUSKAL KUTXEN ETORKIZUNARI BURUZKOA.**

Jose Ramon Furundarenak mozioa irakurri du.

Batzarkideek, Euskal Kutxen etorkizunari buruzko mozioa aztertu dute eta gehiengo onartu dute, honako testuaren arabera:

“Joan den urtearen amaieran Estatu Espainolean Aurrezki Kutxak eta Fundazio Bankarioen, abenduaren 27ko, 26/2013 Legea onartu egin zen. Lege honek EAEko Aurrezki Kutxen Legeari nola eragingo dion –eta ondorioz GIPUZKOAKO KUTXA ren Estatutu eta Araudiari ere- oraindik zehazteke dago, eta beraz, honen garapena zalantzaz betetako daukagu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxak Fundazioak bihurtzeko urtebete baino gutxiago falta den une honetan, oraindik ez dakigu zein izango den beraien Gobernu Organo berriak osatu eta aukeratzeko prozedura.

Honez gain, azkeneko hilabeteetan, KUTXABANKeko hainbat bozeramailek banku honen %70aren salmentaren ezinbestekotasunaz ohartarazi egin dute, salmenta hau aipatu Legeak, Europako Banku Zentralak eta Memorandun Of Understansing-k (MOU) ustez plazaratutako aginduetan oinarrituz. Mota honetako adierazpenak, bilatzen duten helburua edozein izanik ere, hiritargoa nahasteko besterik ez dira egiten, izan ere ez Europak ezta Madrilek ere ez dute derrigortzen Kutxabanken pribatizazioa.

Gurea bezalako Udalentzat hil hala bizikoa da Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko tresna finantzario nagusiaren kontrol publikoa mantentzea. Ezinbestekoa da KUTXABANKek mende eta erdi baino gehiago funtzionatu duten Aurrezki Kutxen sorreraren izpirituari eustea, horrek bakarrik bermatu baitezake interes publikoaren defentsa, Gizarte Ekintzaren sustapena eta bertako herritar, ehun produktibo eta sare instituzionalaren interesen aldeko apustua.

Guzti honegatik, Udalbatza Osoak gehiengo honako mozioa onartu du:

1- Usurbilgo Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalarari eta GIPUZKOA KUTXAKo Gobernu Organoei dei egiten die, KUTXABANKen pribatizatzea baztertu dezaten eta bere jardura gure lurraldeko herritar zein finantza beharrezanetara zuzendu dezatela eskatzen die.

2- Usurbilgo Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalarari eta GIPUZKOA KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, GIPUZKOA KUTXAKo Gobernu Organoek Gipuzkoako jendartearen parte hartzea, bere ordezkari proportzional efektiboa eta barne demokrazia eta gardentasuna bermatu dezaten. Eta horregatik dei egiten die egungo Gobernu Organoei etorkizunean gauzatu daitekeen estatutu edo araudiaren edozein aldaketan oinarri



Usurbilgo Udala

hauek bermatu ditzaten, jarrera hau baliatuz eta defendatuz izaera juridikoaren aldaketa proposa dezakeen edozein ekimenen aurrean, hala nola aurrezki kutxak eta finantza arloko beste entitateen marko normatiboaren edozein erregulazioaren aurrean ere mantenduz.

3- Usurbilgo Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta GIPUZKOA KUTXAko Gobernu Organoei eskatzen die, honen Gobernu Organoak osatuko dituzten kideak entitate fundatzaileek, GIPUZKOA KUTXAko langile eta ezarleek eta Gipuzkoako gainontzeko Udalek proposatuak eta hautatuak izan daitezela, eta horregatik egungo Gobernu Organoei etorkizunean gerta daitekeen edozein araudi edo estatutuen aldaketaren aurrean oinarri hau bermatu eta gordetzeko eskatzen die.

4- Usurbilgo Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta GIPUZKOA KUTXAko Gobernu Organoei eskatzen die, GIPUZKOA KUTXAK bere KUTXABANKen parte hartze portzentajea gutxitzea suposa dezakeen edozein pribatizazio edo desinbertsio programa espresuki baztertu dezaten, gutxienez %32koa izaten jarraituko duelarik.

5- Usurbilgo Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta GIPUZKOA KUTXAko Gobernu Organoei eskatzen die, erakunde horren Gizarte Ekintzaren defentsa irmoa eta beraren suspertzearekiko konpromisoa adierazi dezaten eta hortaz, Gizarte Ekintzaren izaera alda dezakeen edozein araudi moldaketarekiko hala nola bere dimentsioa murriztea eragin dezakeen edozein desinbertsioren aurkako jarrera izan dezaten.

6- Usurbilgo Udalak Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio aurreko puntuetan aipatzen diren oinarri eta edukiak etorkizunean 11/2012, Ekainaren 14koa den EAEko Aurrezki Kutxen Legeak izan dezakeen edozein aldaketan, edo balizko Fundazio Bankarioen Lege berri batetan, jaso ditzan.

7- Honako mozioa Gipuzkoako Foru Aldundi eta Biltzar Nagusiei, Donostiako Udalari, GIPUZKOA KUTXAko Kontseilari Orokor guztiei, Gizarte Ekintza Batzordeari, Administrazio Kontseiluari, GIPUZKOA KUTXAko Lehendakariari eta Eusko Legebiltzarreko Talde Politiko guztiei helaraziko die.”

Bozketaren emaitza honakoa izan da:

**Aldeko botoak:** Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

**Aurkako botoak:** Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, mozioa gehiengoz onartua izan da.



Usurbilgo Udala

## **7.2.- EHBILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: JUAN CARLOS BORBOIKOAREN ABDIKAZIOARI BURUZKOA.**

Luisuari Ormaetxeak adierazi du puntu hau Juan Carlos I erregearen abdikazioari buruz dela eta iruditzen zaiela espainolei dagokien gai bat dela. Beraz, puntu honetan ez dutela parte hartuko jakinarazi du.

Arratsaldeko 19:10ean Luisuari Ormaetxeak eta Josune Urquiak bilkura aretoa utzi dute.

Josu Portuk mozioa irakurri du.

Batzarkideek, Juan Carlos Borboikoaren abdikazioari buruzko mozioa aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioa, Frankismotik eratorritako eredu politiko-instituzionalaren krisi sakonean beste urrats bat gehiago izan da. Kolpe Militar Frankista eman zutenek, beraien jardunaren inolako ardura zein ondorioz nozitu gabe, eta zituzten pribilejio eta botere guneak mantenduz, “lotuta eta ondo lotuta” utzi zuten Estatu botereen etorkizuna. Estatuaren zatiezintasuna aldarrikatuz eta hori hala izan zedin armadari berme funtzioa emanaz itxi zuten erreforma. 1978 ko Konstituzio espainiarra, zeinaren ondorioz Juan Carlos Borboikoa Estatu Buru gisa geratu zen, Euskal Herriak ez zuen onartu. Euskal Herriak uko egin zion konstituzio horri, besteak beste, herri gisa etorkizuna libreki eraikitzeko eskubidea ukatzen zigulako eta benetako haustura demokratikorik ez emateaz gain, Hego Euskal Herria bi eremu administratibotan zatitzen zuelako. Frankismoaren amaieratik eratorritako eredu politiko-instituzional espainiarrak, demokrazia eza, gure herriaren ukazioa eta diktadura frankistarekiko haustura demokratiko eza ordezkatzeko dituzte.

Eredu politiko hau ordea, ez da gai izan Espainiako estatuaren menpeko herrien zein Estatuko herritarren aldarrikapen demokratikoak geldiarazteko. Gero eta nabarmenagoak eta indartsuagoak dira, estatu espainiarreko nazioek beraien etorkizunaren jabe izateko egindako aldarrikapenak. Atzeraezinezko prozesuak ari dira eraikitzen. Herriak, herritarrak eta eskubide demokratikoak protagonista diren prozesuak hain zuzen ere. Bitartean, eredu politiko-instituzional honen krisiaren adierazle argia da, PP eta PSOEek, eta ordezkatu duten bipartidismoaren zilegitasun eta sinesgarritasun krisia.

Testuinguru horretan eman da Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioa. Eta egoera honen aurrean, bistan da, ukazioan eraikitako eta politikoki agortutako marko politiko eta juridiko honi irauarazteko itxuraldaketa operazio baten aurrean gaudela. Juan Carlos Borboikoaren abdikazioak ordea, ez dakar aldaketarik bere baitan: herrien ukazioan oinarrituriko eredu politiko-instituzionala ez bait da gainditu.



Usurbilgo Udala



Erreforma inposatu zenean irekita zeuden gatazka politiko guztiak bere baitan mantentzen dira eta Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioarekin batera, 1977an abian jarritako Frankismoaren Erreformaren fasea amaitzea beharrezkoa da. Hori da herri honen aldarrikapena. Abdikazioaren aurrean, benetako haustura demokratikoa emateko unea da. Herrien eta herritarren eskubideak gauzatu ahal izateko. Espainiako herritarrek beraien sistema politikoa erabakitzeko erreferendum-a egitearen alde gaude. Baina Euskal Herria ez da eztabaida horren subjektua. Euskal Herritarrok gure erabakiak geuk hartzeko dugun eskubidearen errespetua aldarrikatzen dugu, etorkizunean libreki gure egitura politikoa eraiki ahal izateko. Herriok dugun erabakitzeko eskubidearen gauzapena nola egingo den erabakitzeko unea da.

Honen guztiaren aurrean, Usurbilgo Udalbatza Osoak honako mozioa onartu du gehiengoz:

Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioaren aurrean, Usurbilgo Udalak benetako haustura demokratiko baten aldeko aldarrikapena egiten du, Euskal Herritarrok gure herriaren etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatuz. Era berean, herri honek ez dio inolako zilegitasunik onartzen espainiako Koroaren inongo ordezkari.

Bizi dugun egoera politikoaren aurrean, gure herriaren aitortza eta erabakitzeko eskubidea eskuratzeko helburuarekin lan egiteko deialdia luzatu nahi diegu Euskal Herriko alderdi politiko, sindikatu, eragile eta herritarrei.”

Bozketaren emaitza honakoa izan da:

**Aldeko botoak:** Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

**Abstentzioa:** Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, mozioa gehiengoz onartua izan da.

Herriko jaiak direla eta, alkateak jakinarazi die batzarkideei txupinazoa arratsaldeko 19:00etan izango dela udaletxean eta bertaratzeko gonbita luzatu die.

Bestalde, korreo elektronikoz aurreratu dien moduan Atxegan egingo den jubilatuen bazkarirako gonbita ere luzatu die.

**Alkate andreak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:20ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.**